

Liburuak

KRITIKA

Hutsik. Peru Magdalena.
Elkar. 124 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Banbu orriak

HAIKU JAPONIAR eder eta urrunek natura izan ohi dute hizketa gai –urtaro baten hasiera, emakumea bidexkan–, eta izpirituaren hostoak mugiarazten dituzte, errimarik gabeko lerro laburretan, hitz klabe bat oinarri harturik. Ez dute titulurik, eta puntuazio zeinuak zein maiuskulak ez dira derrigor erabili behar. Soilak izan ohi dira, pausatua eta delikatuak, gogorrak ere tarteka. Oso doiak direnez harrigarriro konplexua da diotenaz guztiz jabetzea. Pentsakor eta hunkiturik utz zaitzakete. Eternoak dira.

Haikua laguntzeko, tradizioa izan ohi zen egileak berak marrazki bat eranstea piezari. Marrazkia ez zen izaten oso perfektua, eta zirriborro bat ere izan zitekeen. Peru Magdalenak liburu honetara dakartzan gehienak haiku klasiko-klasikoa dira, jator-jatorrak, marrazki eta guzti.

Baina haikua ez da bere itxura edo metrika, astelehenetan herriko kiroldegian egiten dutena yoga ez den bezala.

Haikua ia ez da literatura, ezpada aszetismoa, edertasuna topatzeko modu bat. Bashok bezala, Oteizak bezala, Igerabidek eta Sarrik bezala, Peru Magdalenak itxuraz garrantzi gutxikoa dena espiritualizatzea lortzen du. *Hutsik* da liburu bat ikaragarria, Joseba Sarrionandia berak “isilaurrea” idatzi dio hitzaurrea barik, begirunez.

Lehenengoz zabaldu nuenean, pentsatu nuen erraza dela haikuan erortzea. Baina irakurtzen hasi eta pentsatu nuen erraza dela, baita, gauzak arinegi epaitzea. Poesia garbiaren esentziaren gaineko lezioa da *Hutsik*. Oraindik durundu egiten dute hainbat eta hainbat momentu gorenek: “lora bat jausten da/ eta hori da guztia”; “ez dago/ ilunpe guztiz ilunik// hontan indarra”; “biderik ez badago soilik bidaiatuko duzu”. Klasikoen artean dago hau, haizeari dedikatutako zatian: “Dantzan egiten du zuhaitzak/ harmonian// hosto bat”. Lainoen zatikoak ez dira haikuak zentzu hertsian, gogoeta edo poema laburrak baino, baina horiek ere gustura irakurtzen dira. Mendien inguruko zatian purutasun gaindiezina aurki dezakegu: “Ez dago mendirik”. Eta kito.

Andrei Tarkovski zinemagileak haikuaren hartzailearen zoriona definitu zuen, esanez irakurlea galdu egin behar dela konposizioaren sakontasunean kosmos batean legez, non ez dagoen ez goirik ez beherik. Azken poeman idazleak berak diosku zelan komeni den irakurtzea liburu, hau da, idatzi den modu berean: “Izan hutsa”. Be water, my friend.

Marcuseren obra garrantzitsuena euskaraz

XX. mendeko bigarren erdian kapitalismoari egindako kritika sonatuen artean dago Herbert Marcuseren *Eros eta zibilizazioa*. 1953an idatzia, arrasto luzea utzi zuen saiakera honek,




Eros eta zibilizazioa.
Herbert Marcuse.
Gaiak.
298 orrialde.
21 euro.

besteak beste 1960ko hamarkadako mugimendu sozialetan. Marcuseren arabera zibilizazioaren eraikuntza prozesua “atsegin-printzipioaren” murrizketa zorrotzean oinarritzen da. Lanaren edizio osatua plazaratu du Gaiak argitaletxeak, lehenengo edizioaren hitzaurrearekin, baita 1966an idatzitako hitzaurre politikoarekin ere. Julen Kaltzada arduratu da itzulpenaz. ■

Idatz & Mintz-en 45. zenbakia

Idatz & Mintz literatur aldizkariaren 45. zenbakian hainbat eduki aurkituko ditu irakurleak. Adolfo Arejitak Nikolas Alzola Gerediaga *Bitaño* (1922-1982) idazlearen inguruan idatzi du, baita haren obraren erakusgarri diren lau testu labur berreskuratu ere; Miren Agur Meabek poema berri bi argitaratu ditu aldizkarian; Amaia Iturbidek *Lante-gauak* izeneko ipuina ekarri du eta Jabier Kaltzakortak *Ontziak eder du bela* edo *Itsasu elizaldeko* baladaren bi aldaera argitaragaberen inguruan egindako analisisa publikatu du. Andres Urrutia Euskaltzaindiako buruak *Azkeuri gorazarrea* izeneko artikuluan euskaltzale handiaren omenez Eusebio Erkiagak idatzitako hitzak azpimarratu ditu. Gainera, aldizkariaren zenbaki honekin batera Mikel Zarateren *Hizunigu* idazlan argitaragabea zabaldu dute separata modura. ■



Idatz & Mintz 45.
Batzuen artean.
Labayru.
51 orrialde.
6 euro.